

Batarrita

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Batárritte



43° 10' 42"

2° 34' 43"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Topatutako lehen arrasto dokumentala 1704koa da, eta bertan Sallobente-Mendibil kofradia-
ren baitan agertzen den baserri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da izen hau. Gero-
ra izen hori mantendu da, eta errolda guztietan izen bera aurkitzen dugu. 1859ko udal-izen-
degian *Batarritas* (1859, BUA, Nmc.) izena agertzen zaigu, eta aipu horrekin erreferentzia
egin nahi zaie inguruan aurki-

tzen ditugun etxei: *Batarrita* eta *Batarritaetxebarriari* (**Ikus Bata-
rritaetxebarria**). Egun bizi-
tza biko baserria da, nahiz eta
garai batean hiru familia bizi
ziren bertan: baserriko bizitzan
bi, eta baserriaren aurrealdean
dagoen eraikinean beste familia
bat. Azken eraikin hori erorita
dago, eta dokumentazioan *Ba-
tarrita Arnaga* (1905, BUA, 40.
or.) moduan agertzen da. Aipa-
tu dugun moduan, aurrealdean

*“... la casería de Batarrita y sus pertenecidos radicantes en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz... en la Cofradía o barriada de San Lorenzo y se compone de dos viviendas distribuidas en el piso bajo de portalada, cocina, cuartos y cuadras; en el principal de sala y dormitorios y en la parte superior de cuadras y pajares. La casa accesoria de en frente... consta de una vivienda con una cocina y cuadra en el piso bajo, y en la parte superior de cuartos dormitorios y pajares. Ocupan ambos edificios, con inclusión de la tejabana, horno, zaguanes y un retazo de huerta, doscientos cincuenta y tres estados equivalentes a nueve areas y sesenta y dos centiareas...”
DJE 3/191 or. (1877)*

toponimia

Berrizen badira -ita amaiera duten leku izen asko eta Etxeita kasuan hasieran etxe egon daitekeela pentsa daitekeen arren beste batzuetan hasierako osagaia pertsona izen bat izan litekeela pentsa genezake. Hori balitz kasu honetan pater izan genezake, baina datu gehiago beharko genuke zerbait ganoraz ondorioztatzeko.



Batarrita / Berriz Irudian

lehengo eraikuntza baten aztarnak aurkitzen ditugu, eta horiekin batera izkin batean harraska aurkitzen dugu. Antza denez, *Batarrita* baserrian aurkitzen dugun harraska hori inguruko beste etxeek ere erabiltzen zuten.

Baserri-etxe ederra dugu, bizitza bikoa eta XVIII. mende amaieran egin ziren etxe askoren antzera jaso. Azkeneko eraberritzean hormigoia erabili dute balkoietan eta fatxada nagusiko harlangaitza desestali. Hala ere, jatorrizko etxearen itxura gorde du bete-betean. Bi

solairu eta ganbara ditu, bi isurkiko teilatuaren azpian. Erdiko ardatzaren arabera antolatu zuten dena, eta sarrerako atartea da aipagarriena, bi arku dituelako. Gainean, balkoia dauka, burdinazko karelarekin, eta horrekin lerrokatuta, ganbarako leihoa. Bi pisuetako aldamenetan, leiho bana dauka. Bao guztiak harlandu ederraz burututa daude, baita arkuak eta kantalak ere. Ganbara egurrezko egitura imitatuz gauzatu zuten, eta horma estalita dago.